

ELKARRI MOKOKA: Pello Azpirotz eta Mikel Hernandorena **OREKA OSASUNTSUA:** Nere Sotil

ELKARRIZKETA NAGUSIA: Riki Sotil **KUXKUXEAN:** Ilbeltzeko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria



Urte berri, asmo berri

Juan Cruz Martirena (Uitzi)

Bertso berriak

Mailoperi jarriak



Beste behin ere Olentzerok ez zuen huts egin eta ikastetxez ikastetxe ibili zen ikasleei bisita egiten. Hasi dugu urte berria eta ea 2017ak zer dakarkigun.

>> Nor da Nor?



Nor da nor?
Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?



*Erantzunak hurrengo
alean kaleratuko ditugu!
Ea asmatzen duzuen!*

- 2 -

Aurreko alean kaleratutako argazkia Arribeko surtidore atarian ehiztari koadrila bati ateratakoa da. Ezkerretik eskuinera: Bernardo Gorostiaga, J. Joakin Gorostegi, Angel Amondarain, Loidi, Juan Gorostegi, Juan Manuel Lopetegi, Inaxio Otaegi, Juan Antonio Lopez, Jose Ramon Lopez, Gregorio Irasuegi, M.M. Gorostegi, Juantxo Oreja, Juan Ignacio Sanz, Joxe Otxotorena, Joxe Ezkurdia, Angel Jauregi eta Antonio Mugerza besteak beste.



Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Urtarrilaren 9tik otsailaren 28ra bitarte gorputz tratamenduetarako (10 saio) bonuak %50eko beherapenarekin!

Aurpegiko tratamenduak (6 saio) %30eko beherapenarekin.

Martxoaren 30ean iraungitzen dira bonuak.

04> Iritzia

08> Luze: Leire Aranburu



10 > Riki Sotil

Estatu Batuetan jaioa da Riki Sotil. Bere aita, Ricardo Sotil, Betelutik hara joan zen gaztetan zesta-puntan aritzera. Riki bera ere, profesio-naletan aritu zen eta gaur egun jada jarraitzen ez duen arren, kirol munduari lotuta jarraitzen du.

20> Eskolatik Mailopera

22> Kultura: Aste kulturala



23 > KK Plasta

Joan den hilean ospatu genuen Mailoperen aldeko Kaka Plasta Atallun. 846 zenbakia izan zen txartel sariduna eta dagoeneko saridunarekin izan gara.

24> Erreportajetxo: Olentzero



26 > Unai Artola

Unai Artola Aralar Musika Eskolako irakaslea da eta lau urte daromatza Musikari Txikien tailerra eskaintzen. Aurten hiru eta lau urte arteko haurrentzako tailerra ere eskainiko dute. Dagoeneko izen emateko epea zabalik dago.

28> Oreka Osasuntsua: Nere Sotil

30> Kirola: Araitz-Beteluko Krosa eta igeriketa sinkronizatua

31> Kontu txikiak: Agenda eta Merkatu txikia

Inor ez da ezinbesteko, baina denok gara beharrezko

Beste urte batez, joan den abenduaren 4an Araitz-Beteluko Eguna ospatu zen eta beste urte batez pertsona bat falta zitzaigun gurekin, jarduerak antolatze bidea hasi genuenok. Aurten ez zegoen gure artean, baina bere presentzia nabaritu egiten zen.

Olentzeroren etorreran ere faltan botako dugu, baina azken urtetan jada ateratzen ez diren gainontzeko txistulariei ere, baina ondare oso garrantzitsua utzi digute. Nik ez dut hitzik, irakatsi didaten guztia eskertzeko. Asko ikasi dut, adibidez inor ez dela ezinbestekoa, baina denok garelako beharrezko.

Zuek orduan haurrak izanik, orain heldu bihurturik, zuekin gozatu eta ikasi genuen eta orain testigua eskuz aldatzeko garaia da, berritzeko garaia, baina zuen ondoan egon ginen guztiak ahaztu gabe. Orduan emandako guztiak gauza berriak eta ezberdinak egiteko balioko duen esperantza galdu gabe eta gogo eta ilusio handiarekin egiten jarraitu dezatela, gu hasi ginen moduan.

Bihotz-bihotzez eta arrazoi batengatik edo bestearengatik gure artean ez dauden horiek ere gogoan harturik urte amaiera ona izan dezazuela desio dizuet. Urte Berri On!

Txaro Garate, Arribe

- 4 -

Larraungo/Lekunberriko Udaleri:

Idatzi honen helburua da euskara batzordearen kezka adieraztea, Larraungo osasun etxean euskaraz ez dakien mediku bat hasi delako lanean, eta ez dituelako herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen. Medikuek horrek une honetan, Larraungo herri batzuetako biztanleei ematen die zerbitzua, hau da, udalerrri euskaldun bateko biztanleei, eta ez du gaitasunik euskaraz komunikatzeko. Orain arte herrian zegoen, eta gainerako biztanleei zerbitzua ematen jarraitzen duen medikua euskalduna dela kontuan izanda, atzera pauso nabarmena da postu horretan langile elebakarra jartzea. Azken urteetan eskatzen ari gara administrazio publikoak herritarren hizkuntza eskubideak kontutan hartzea; kasu honetan, euskaraz aritzeko eskubidea. Jakitun gara urratsak egiten ari zaretela, eta hori da bidea. Dena den, uste dugu ezin dela onartu lehendik lortutako alderdietan atzera egitea, eta horixe da Larraungo osasun etxean gertatu dena. Egoera honen aurrean udalak beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatzen du euskara batzordeak.

Horrez gain, ikusi dugu sendagileen banaketa egin eta hizkuntza irizpideak ezartzerakoan, ez dela oso kontuan hartu udalerrien izaera. Sinesten dugu profesional elebidunak osasun etxeetan kokatzerakoan, lehenetsia izan behar dutela eremu euskaldunek, gune horietan nabariagoa delako euskaraz komunikatzeko gabeziak herritarrengan duen eragina. Neurri zuzentzaileak eskatzen ditugu banaketa horretan, eta herriz herriko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartzea, beti ere, herritarren eskubi-dei eta zerbitzuaren kalitateari begira.

Larraun bailara arnagunea da, Nafarroako Iparraldeko beste udalerrri batzuen gisan. Euskaldunak dira herritarren gehiengoa gune horietan, eta euskaraz bizitzeko baldintzak dituzte, hizkuntza modu naturalean transmititu delako, belaunaldiz belaunaldi. Hori dela-eta, beharrezkoa da gune horiek zaintzea, euskararen gotorleku izaten jarrai dezaten eta gainontzeko udalerriei begira ere eredu eta bide urratzaile papera joka dezaten. Neurri bereziak behar dituzte, beraz, udalerrri euskaldunek, eta administrazio publikoaren betebeharra da horretan ekarpena egitea.

Egoera honen aurrean udalak beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatzen du euskara batzordeak: Larraungo izaera eta bertako herritarren hizkuntza joerak aintzat hartzeko, eta postu horretan mediku euskalduna jartzeko eskaera bideratzeko.

Beti bezala, hitz egiteko eta elkarlanerako prest izango gaituzue.

Larraun eta Lekunberriko Euskara Batzordea

iragarkiTauLA

Beteluko Udalak onartutako azpiegitura proiektuak

2009-2012 urte bitarteko azpiegitura egitasmoak diruz laguntzeko deialdira hiru proiektu aurkeztu zituen Beteluko Udalak. Krisia dela eta epea luzatu egin da, baina Nafarroako Gobernuak 2016ko programan sartu ditu eta 2017an zehar egitea aurreikusten da:

- Antigua kaleko eraberritze proiektua
- Ur biltegiako bide berria egitea.
- Hilerria eraberritzea.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

Beremunda Arano Barberena

Azaroan zehar, zoritxarrez, hiru pertsona zahar joan zaizkigu Etxarri Larraunen: Benantzio Eguzkitza, Mikaela Lasarte eta Beremunda Arano. Azken hau 92 urterekin. Asko daukat nik Beremundari eskertzeko.

Hasteko, txikitan, Behiko Bordatik Etxarriko eskolaraino oinez joaten nintzenean, Zapatenean gelditzen nintzen bazkaltzera, Behiko Bordaraino itzuli behar ez izateko, eta, horrela, kilometro gutxiago egiteko. Zapatenea aipatu dut, hau da, Beremunda bizi izan den Etxarriko etxea. Sortzez, Beruetekoa zen, oker ez banago, baina Etxarrira ezkondu eta Zapatenean eman du bere bizitza gehiena. Beste horrenbeste egin zuen bere ahizpa Joxepak, hau ere, orain dela urte gutxi hil zena eta Txalbenean eman zuena bere bizitzaren parte handi bat.

Kontua zera da, nik eskolarako bidean kilometro gutxiago egin nezan, gurasoek erabaki zutela, ibiltzeko eguraldi deserosoa zegoenean, herrian geldituko nintzela bazkaltzera. Horrela egin nuen hasieran Lopitxenean, izeba Rafaela Begiristain eta osaba Elias Etxarri Lekunberrira bizitzera joan ziren arte. Harrezkero, Zapatenean gelditzen nintzen Beremundarekin. Goizean, eskolarako bidean, amak jartzen zizkidan janariak eraman eta Beremundak berak prestatzen zizkidan bazkalordurako. Bestela, eguraldi eramangarriagoa egiten zuenean, bi aldiz joaten nintzen oinez herrira eta beste bi aldiz itzuli Behiko Bordara. Horrela astelehenetik ostiralera.

Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut esateko, Beremundak beti tratatu izan ninduela oso ongi eta txera handiz, lehenago izeba-osabak Lopitxenean, eta geroago Lekunberriko Zeztonekoek egin zuten bezalaxe. Hortaz, hemendik esan nahi dut, Beremundari beti gordeko diodala txoko bero eta maitekor bat nire bihotzean, izeba Rafaela eta Zeztoneko Pakitari bezalaxe.

Baina, idazki hau, aldi berean aprobetxatu nahi dut, gure herrietako eta Euskal Herri osoko euskaldunei merezitako omenalditxo zintzoa egiteko. Konparaziora, hasieran aipatutako hiru pertsona horiek, Benantziok, Mikaelak eta Beremundak, barruan euskal sena zeramaten, euskaraz pentsatzeko dohaina, euskaraz adierazteko trebetasuna, erdaldunen aurrean konplexurik gabe agertzeko ausardia, eta hori, tamalez, gaur egun, Euskal Herri guztian, gero eta gutxiago gelditzen da.

Gero eta frantsestuagoak edota espainiartuagoak gaude; gero eta kolonizatuagoak.

Eta hau guztia pixka bat ilustratzeko, hona hemen adibide polit batzuk: Beremundak, behin batean, gure amarekin hizketan (Nieves Madotz Azkue), euskaraz gutxi zekienarekin, honako hauexek bota zizkion: <la mapa>; <la pijama>; <nuestro hombre ha ido a la borda>, eta abar. Bai, jauna! Euskal kontzepzioan horrela baita; gauzek ez baitute generorik, espainieraz bezala. Eta senarrari dagokionez, Beremundak "gure" moduan, "gure" bezala ulertzen zuen, hau da, etxeko denena bezala, eta ez bere jabetza bakarrik balitz bezala. Gizartea ulertzeko askoz ere modu eskuzabalagoa zeukan, eta ez erdaldunena bezain berekoa: "nire senarra"; "nire etxea"; "nire alaba", eta abar.

Beste behin batean, Bautista Lasartek honako hauexek esan zion gure amari: <estos polvos traeran sus barros> (hego haize handia zebilelako). Edo gure amak <buenos dias> esaten zionean, Bautistak: "igual" erantzuten zion. Eta bukatzeko, osaba Elias Etxarrik gure ama noizbait urduri ikusi zuenean, esan ziona: "¡tu tranquilo, no apurar!".

Bai, jaun-andreak! Jende euskaldun peto eta jator horri guztiari, bioakio hemendik nire gorazarre eta goraipamena!

Xanti Begiristain Madotz, Iruñea

JoandakoakGogoan

"Zuhaitz bezala lurean, kantuak bezala haizean..."

Bidali zure heriotz-agurra mailope@labrit.net

e-postara edo dei ezazu

638 652 339 telefono zenbakira eta agurtu

**itzazu zendatutakoak
aldizkariaren bitartez.**

(Dohako zerbitzua).

asegurogintza
aseguru
aholkulariak
**Zure ondarea
eta segurtasuna
babesteko modu
bakarra behar bezela
aseguratua egotea da**
Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

Bertso berriak.

Mailoperi jarriak

Juan Cruz Martirena (Uitzi)



*Mailopen alde denak
Kantari plazara
Gure artean sortuz
Barruan zirrara
Umorean bitartez
Parre ta algara
Egun handi horretan
Han izango gara*

*Taldean o bakarka
Oholtza gañean
Atsalde ona pasaz
Elkarren artean
Bailara elkarturik
Giro bikañean
Egin dezagun kanta
Guztiok batean*

Mikel Huarterentzako puntua: _____

Ilbeltza, hilabete luzea.

Oinak: _____

Hotza, Izotza, Motza, Bihotza.



Doinua: Larraungo zortzikoa

- 6 -



EHME

Euskal Herria Mendi Erronkako antolatzaileek proban izen emateko epearen data argitaratu berri dute. Otsailaren 1ean hasiko da eta maiatzaren 15era arte luzatuko da, aurretik dortsalak amaitzen ez badira. Informazio gehiago: www.ehmendierronka.eus


SANTA AGEDA BEZPERA

Otsailaren 4an, hainbat herritan kalera irtengo dira koplak abestera. Araiztarrak eta beteluarrek, aurtan Azkaraten ospatuko dute Santa Ageda bezpera. Arratsaldeko 17:00etan Azkarateko plazan elkartuko dira herrian barna kantari ibiltzeko eta ondoren askaria izanen da guztientzat.

LIBURU TRUKAKETA

Araxes ikastetxeko ikasleek azken urteotan bezala liburu trukaketa egin zuten joan den hilean Beteluko frontoian. Ikastetxeak eta Gizarte Zerbitzuak elkarlanean antolatutako ekimena izan zen eta horrez gain eskulan tailerra ere egin zuten.

Alepo, lepotik helduta



Mikel Hernandez

Kaixo Pello!! Zer moduz doa dena?? Imaginatzen dut abenduko hilabete honetan lanez lepo ibiliko zarela unibertsitatean, baina hala ere, animo, segituan Eguberriak datoz eta. Ni ere lanekin pilatuta nabil, baina hala ere, kexatu ezin garela deritzot, gu baino Eguberri okerragoak igaroko dituen jendea badago eta. Horien artean, Alepoko eta Siriako biztanle guztiei elkartasuna adierazi nahiko nieke. Biztanle hauek leporaino daude bai, baina egunero jasaten dituzten bonbardaketa, tiroketa eta gerraren krudelkeriaren ondorioz.

Hilabete honetan, Alepo hiria Siriako gobernuaren aldeko armadak hartu du, eta bertatik erregimenaren aurkako oposizioko armada kaleratzea lortu du. Hala bada, hiriko bar-

“Biztanle hauen heriotza ez da, dirudienez, hain garrantzitsua”

nealdeko zibilak ebakutzeko lanetan korridore bat ireki dute, bertatik hiritarrak gerraren krudelkeriatik ateratzeko asmoarekin. Batzuek hiritik ateratzea eta heriotzatik ihes egitea lortu badute ere, beste batzuk, hiriko eraikin suntsituen azpian geratu dira edota bonbardaketek akabatu dituzte. Rita Barberarentzat ohore guztiak izan dira, bizitzan zehar behin eta berriro lapurtzen ibili eta gero, baina gerra zibil krudela jasaten ari diren biztanle hauen heriotza ez da, dirudienez, hain garrantzitsua. Egun hauetan sare sozialetan, Alepoko hiritar eta haur askoren bideoak edota hil aurreko testigantzak nahiz gutunak agertzen ari dira, azken agurra ematen eta bertan jasaten ari diren krudelkeriaren gaitzespena egiten. Gogorra da benetan, herrialde asko eta asko gerraren bidez haien patrikak betetzen ari diren bitartean, beste batzuk errealitate gordin horren aurrean ezer egin ezin izatea.

Ez dakit noiz arte iraungo duen Siriako Guda Zibilak, baina argi dagoena da kapitalismoak ere, gerraren negozioaren bidez, bere gainean milaka heriotz dituela. Zer deritzozu gai honen inguruan Pello??? Bukatzeko, denoi urte bukaera ona izan dezazuela eta urte berria hobeto hastea desio dizuet. Eguberri onak pasa eta Urte Berri On!!!

lepa Mikel! Ba bai horrela ibili naiz lanpetuta baino Gabonen etorrera ongi etortzen da atsedenaldira on bat hartzeko. Familian, lagunekin... konpainia onean egoteko garaiak dira hauek, eta ni behintzat horrela ibili ohi naiz. Baina munduan gabon zoriontsuak izango ez dituen jende asko bada zoritxarrez, eta horietako batzuk dira adibidez zuk diozun bezala Siriako gerraren ondorioak jasaten ari direnak.

Siriako gatazka konplexua da oso, interes geopolitiko eta ekonomikoak sartzen baitira bertan, eta horien ondorio okerrenak jasaten ari direnak herritarrak dira. Siria estrategikoki oso leku garrantzitsuan dago eta nire uste-



Pello Azpiroz

“Agintariak, gerrari amaiera emateko ez dute egiazko ahaleginik egiten”

tan faktore ugari hartzen dute parte bertan. Muga egiten du adibidez Turkia eta Israelekin (EEUU eta Europaren aliatuak dira), liskarrak sortzen dituzten erlijio mota ugari daude (chiitak, suniak...). Kurduak gerrako partaideetako bat direla ere ez da ahaztu behar, petrolio eta gasa garraiatzeko oso herrialde garrantzitsua da (Europarako sarrera baita)... Oso korapilotsua da bertan gertatzen dena. Gerraren amaiera urruti ikusten dut zoritxarrez, interes gehiegi baitaude bertan.

Nahiz eta agintariak hitz polit asko erabili gerrari amaiera emateko duten nahia erakutsiz, ez dutela egiazko ahaleginik egiten. Askotan gertatzen den bezala soilik hitzak dira, aldatzeko nahirik ez. Argi dago Siriako gerran hiltzen den baten biziari ematen zaion garrantzia edota adibidez Rita Barberari (adibidez, zuk esan duzun bezala) ematen zaiona, ez direla berdina. Beste maila batean dago Siriakoaren bizitza.

Gerretatik probetxua ateratzen duen jendea betidanik egon da eta egongo da. Eta zuk diozun bezala honetan ere kapitalismoak pisu handia du. Baina tira guri ez digunez eragiten ba ez diogu nahikoa garrantzi ematen inguratzen gaituzten kontu askorekin gertatzen den bezala. Nik ere gabon zoriontsuak eta urte hasiera ona izatea opa dizkizuet!!!





Leire Aranburu

LUZE

Urte bat gehiago

Urte bat gehiago, urte bat gutxiago, hemen dugu milurte honetako beste urte berri baten hasiera. Eta aurrekoaren arima eta hitz emateak, atzean geratu zaizkizu. Oroitzapenak eta bizipenak, egindakoak edo hurrengorako utzitakoak... pasatako denbora eta aukerak dira horiek, galdutako edo ondo erabilitako denbora. Gehienok familia eta lagunen babesean pasa ditugu egun hauek, eta orokorrean opariak jasotzen dituenaren kekak ez dira asko izaten.

Zenbat izan ote dira ordea, Eguberri hauek bakarrik pasa dituztenak? Zenbatak ez ditu ospatu bakarrik zegoelako, edo diru nahikorik ez zuelako, edo animo falta zuelako... Askok dira arrazoiak eta bakoitzaren atzean bere istorioa ezkututzen da.

Baina pertsona talde zehatz baten bakardadean murgildu nahiko nuke. Ez Eguberriaren harira bakarrik, modu orokor batean zabaltzen den egoera baten harira baizik.

Pertsona talde hau, askotan itzalean geratzen diren edo uzten ditugun zaharrenek osatzen dute. Ez naiz ari biloba nahiz senideekin egoten diren zaharrez. Senitartekorik ez duten, edo edukita ere bakardadean etsita bizi diren horietaz ari naiz.



“Bakardadean etsita bizi diren horietaz ari naiz”

Pertsona hauek, askotan zaharretxetan edo antzekoetan bizi dira urte osoan zehar, askok familia izaten dute, baina zainketa beharrak direla, denbora falta dela... mila arrazoi gehiago direla eta senitartekoak ezin dira euren kargu egin. Ez naiz ari inori errurik leporatzen, familia bakoitzak bere bideak eta erabakiak hartu behar ditu inongo errepresiorik gabe, dituen baliabide eta aukerak aprobetxatuz.

Baina uste dut beharrezkoa dela, minutu bat hartu eta pertsona horietan pentsatzea, pertsona hauek, askotan etsipenean bizi dira, guztiz ahulduak eta bizipozik gabe. Zaila egiten zaie errealitatera itzuli eta arazoei aurre egitea. Tristezia eta bakardadea ez den beste ezer sentitzeko arazoak izaten dituzte. Eta askotan munduarekin haserre bizi direla dirudi. Puntu honetara, ez dira bapatean iristen, pentsamendu hauek ez dira egun batetik bestera sortzen, urteetan zehar gordetako emozio txarren pilaketak dira.

Ez dizuet eskatuko gabonetan, nahiz beste egun berezietan pertsona hauek hartu eta etxera ekartzeko bakarrik sentitu ez daitezen. Horretara ezin dut inor behartu. Baina zuen zahartzaroan pentsa ezazue. Nolako zahartzaroa nahiko zenukete. Ziur nago inor gutxik amestuko duela aurrekoa bezalako zahartzaro lazarriar. Horregatik, eta uste dudalako horretara ez iristeko bidegu geu garela, zuetako bakoitzari eskatu nahiko nioke, pentsamendu tristeak, haserrea eragiten digutenak, amorratzen gaituztenak... ez ezkutatzeko, errazagoa da orain denak kanporatzea. Etorkizuneko aitona-amona erretxin eta tristeak saihestuz. Horrela, agian, etorkizunean geureak faltako zaizkigulako, baina gure izatea ez.

SAStraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9 948.60.48.06 Iñigo
31170 Lekunberri www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskalak...

Diario Vasco eta Diario de Navarra Korrespontsala

948513056
699179437

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00

Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea

Arribe
948 51 31 34



Haiena da hitza

Kaixo irakurle,

Haur txiki baten guraso (edo osaba, edo laguna edo...) baldin bazara, ekin-tza baten proposamenarekin natorkizu oraingoan. Baina hasi nadin hasieratik. Bada denbora luze mugimenduan eta pertsonarengan honek duen eraginean interesaturik nagoela. Betiko parrandan ibili eta antolatzaile eta animatzaile izan ondoren, zer edo zer falta zitzaidala sentitzen nuen, niretzat ez zela osoa eta osasungarria han topatzen nuena. Zarata asko, inkontzientzia asko eta la-saitasun gutxi topatzen nuen sarritan. Ondorioz, nire buruarekin eta besteekin harremantzeko eta dibertitzeko beste bide batzuen bila hasi nintzen.

Bide horietako bat da kontakt inpro-bisazioa, dantza mota bat non nor bere buruarekin, inguruarekin eta beste per-tsonekin kontaktuan egonda, mugimen-dua agertzen eta garatzen den. Bertso-laritzan bezala, gauza eginak badauden arren, ekintza nagusia mugimendua in-probisatzea da. Dantza honi esker, asko landu ditut nire gorputz oharmana, gor-puzkera, emozioak, besteekiko harre-mana... Euskal Herrian elkarte bat egi-ten ari gara, eta dantza saio eta ikastaro asko antolatzen ditugu. Dantza integrala deitzen den formakuntza bat ere bukatu berri dut, mugimenduaren bidez gai ez-berdinak lantzeko eta garatzeko. Udaran, gure elkarteko kide batzuk Euskal He-rrira aukera ekarrita, Contakids deitzen den diziplinako aste bateko formakuntza egiteko aukera izan nuen.

Contakids Itay Yatuv deitzen den kontakt irakasle batek asmatu zuen. Bere alaba Sofirekin jolastuz dantzan atera zioten bideo bat famatu egin zen (Youtuben duzue ikusgai) eta jendeak hori egiten erakusteko eskatzen zion. Bera ariketak edo jolasak zehazten joan zen, molda-tzen edozein guraso eta umek progresi-boki egin zitzaten. Gero eta klase gehia-



“Helburua guraso eta haurrei kalitatezko denbora izateko aukera eskaintzea da”

go zituen eta ondorioz bere moduko irakasleak prestatzen hasi zen mun-duan zehar. Gaur egun, mundu guztian 88 irakasletik gora gaude, klase pila bat, festivalak...

Kontaktuzko jolas horiek egiteaz har-ratago, guzti honen helburua guraso eta haurrei kalitatezko denbora izateko aukera eskaintzea da, nun haien harre-mana landuko duten elkar errespetatuz. Gurasoen egoera fisikoa, umeen nahiak... Guztiz errespetatuko dira eta pixkanaka konfiantza eta segurtasuna garatzen joaten da. Kontaktua berez da sendatzaile eta sendotzaile, eta modu zainduan eginez gero, oraindik gehiago. Oso garrantzitsua da partaideen beha-rretara moldatzea, hortik etorriko dira ondorio egokiak.

Gure eskualdeko Kirol Mankomunita-tearekin hitz egin ondoren, urtarrila bukaeratik aurrera bi klase proposa-men egingo ditut gure inguruan, bata Lekunberriko kiroldegirako eta bestea Arribeko udaletxeko ganbararako, ingu-ruetako guraso eta umeei zuzenduak. Umeen adin tarte egokiena 2 eta 4 urte tartean izatea da, eta klasera guraso bat ume batekin etortzea da egokie-na, aldatu daiteke astetik atera ama edo aita. 10 eguneko zikloak izango dira biak, 45 minutukoak, asteazken arratsaldeetan egingo ditugu eta leku mugatuak izango dituzte.

Ez da aurretik mugimenduan praktika-rik behar, bai ordea haurrarekin jolas-teko, harremana garatzeko eta sen-dotzeko gogoia gorputza eta emozioak landu nahia... Interneten badaude in-formazio eta argazki gehiago dituzten orriak, bereziki <http://www.contakids.com/> nun argazki eta informazio ge-hiago dagoen.

Garai berrietan ekintza berriak egoera berrietara moldatzea beharrezko de-nez, harremanak hobera garatzen joan nahian, animo eta aurrera!



“Kirolari euskaldunek badute munduari zer erakutsia”

- 10 -



Ricardo Sotil beteluarra gazte zela Ameriketara joan zen zesta-puntan jokatzera. Orain, Riki, haren semea, saiakera berezia egiten ari da euskal kirolei nazioartean lekua egiteko.

Ricardo da zure berezko izena, aita bezala...

Bai Ricardo Sotil, baina ni etxekoentzako Riki naiz eta Lasa dugu izengoitia.

Zu Estatu Batuetan jaioa zara baina aita beteluarra duzu...

Bai, ama kubatarra dugu eta aita hemengo, Betelukoa, Errementetxean jaioa. Bost anai-arreba ziren. Gure aita zesta-puntan ibiltzen hasi zen eta lehenik Madrilera joan zen jokatzera eta ondoren Estatu Batuetara. Kuban gure ama ezagutu zuen eta han jaio ginen nire anai zaharrena eta ni. Ondoren, beste anai bat Kalifornian jaio zen eta gazteena Gernikan, garai hartan aita hemen zebilelako jokatzera eta hona etorri ginen. Lau senide gara, Emilio, ni, Jorge eta Rafael.

Eta lauek zesta-puntan ibilitakoak zarete?

Bai eta gure lehengusu bat ere ibili zen. Aitak txikitatik erakutsi zigun, bera izan zen

gure entrenatzailea eta horrela hasi ginen zesta-puntan. Gu New York eta Boston artean bizi gara. Eta batez ere Floridan eta Euskal Herrian bizi izan ginen haurtzaroan. Gogoan dut Gernikan bizi ginenean mojen eskolara joan nintzela. Baina, bizitzaren zatirik handiena Estatu Batuetan eman dugu.

Estatu Batuetako zein frontoitan jokatzen zenuten?

Ni iparraldeko frontoietan ibiltzen nintzen, baina garai hartan hamalau frontoi zeuden eta horietatik bederatzi Floridan.

Zenbat urtez ibili zinen zesta-puntan?

16 urterekin hasi eta 39 urterekin erretiratu nintzen.

Eta hasi zinenean afizio handia al zegoen?

Bai. Zesta-puntan ibiltzen ziren gazte asko zeuden orduan. Nik Bartzelonan debutatu nuen eta ondoren Estatu Batuetan aritu nintzen. Hemen dezente jokatzen zen, baina dirua Estatu Batuetan zegoen. Hala ere, hona etortzen ginen tarteka txapelketetan parte hartzera. Nik hemen zenbait mundial irabazi nituen, Miarritzen, Donibane Lohitzunen...

Estatu Batuetan zesta-puntan aritzen zineten guztiak euskal jatorrikoak zineten?

Baziren zenbait amerikar ere, baina gehienak euskaldunak eta frantses-euskaldunak ginen. Bizkaitar eta gipuzkoar asko zeuden, nafarrak gutxiago.

Nolakoak ziren han jokatzen zenituzten partidu haiek?

Ez ziren partiduak, kinielak ziren, apustuak egiten ziren. Pilotariek soldata bat zuten eta horrez gain kinieletan gelditzen ziren postuen arabera irabaziak izaten zituzten, horrek ematen zien hobetzen jarraitzeko motibazioa. Baina orain loteria saltzen da, kasino asko ireki dituzte eta galdu egin da frontoian apustuak egiteko zegoen ohitura. Tarteka partiduak ere egiten ziren frontoien artean, baina 15 edo 20 tantotara jokatzen zuten.

Gaur egun zein da zesta-puntak Estatu Batuetan bizi duen egoera?

Bi greba bizi izan ditugu. Lehena nire aitaren garaian, 1968an, greba horren ondotik aitak jokatzeari utzi zion. Eta



Riki 50 urterekin hasi zen aizkoran eta hainbat saio egin ditu Estatu Batuetan.

“Zesta-puntak ekarri gintuen Ameriketara”

20 urteren ondoren, gu jokatzen hasiak ginenean, pilotarien aldeko sindikatua indartzen hasi zen. Gu hiru urte t'erdiz egon ginen greban, denbora gehiegi izan zen eta kirolari gogor eragin zion. Ezinezkoa izan zen horren ondotik afizioari eustea. Gaur egun, nire iritziz, frontoian ez badira legeak aldatzen amaitu egingo da. Eta pilotariaren errua da hein handi batean!

Zergatik?

Pilotaren munduan, atzetik politikan sartu den jendea egon da eta pilotariak nazkatu egin dituzte. Nire aitaren garaian jada, enpresek pilotarien kontra joaten hasi ziren. Pilotariak laguntza behar zuen. Euskaldunok elkartu egiten gara eta 68ko greban elkartu egin ziren, baina baziren Txurruka edo Ondarres bezalako pilotari handiak, zaleen artean figura batzuk zirenak, eta horiek pilo-

tarien alde egin beharrean enpresen alde egin zuten, gure kontra joateko. Ulertezina da, baina hala izan zen. Baziren Egurbide bezalako enpresak ere gainontzeko enpresen jokabidea jarraitu ez zutenak eta ahal zuten heinean pilotariei laguntzen zietenak. Pilotariei laguntzeko bonoak ematen zituzten eta Txurrukak bono horiek kendu egin zituen! Horren ondorioz etorri zen greba.

Zein esanahi du zesta-puntak zuretzat?

Dena. Gu zesta-puntarekin hezi izan gara, horrek ekarri gintuen Ameriketara eta horrek eman digu hein batean gaur egun ditugun ondasunak.

Eta gaur egun zein da zure lanbidea?

Basogintzarekin eta altzairugintzarekin lotutako bi enpresa ditut Estatu Batuetan.

2015ean Betelun aizkora apustua ere egin zenuten...

Bai. Nik orain 55 urte ditut eta 50 urterekin hasi nintzen aizkoran. Orain dela bi urte Betelun nengoela, lagunaren artean, apustu bat egitera animatu ginen. Desafio bat, ni eta Juan Carlos Buldain,

elkARRIZketa:

*“Estatu Batuetan ‘el vasco’
deitzen didate eta hemen
berriz, ‘amerikanoa’”*

Lontxo Otamendi eta Vicente Iriarteren kontra, hiru enbor nork moztuko azkarren.

Eta zer moduz joan zen?

Astinaldi ederra eman genien! Hor dago txapela! Polita izan zen, Beteluko festetan egin genuen eta plaza goraino bete zen. Egun hartan pentsatu nuen: “Niri dagoeneko ez dit inork irabaziko aizkoran!”. Eta Estatu Batuetan antolatutako jaialdi batean Atutxa eraman zuten. Apustua egin genuen nik eta adiskide batek bere kontra. Atutxak berak esan zidan: “Nik hamar enbor moztuko ditut eta zuk eta zure lagunak, bien artean, zortzi”. Hori entzundakoan ondokoari esan nion ingelesez hori erraz irabaziko geniola. Baina motozerrarekin ere ez genion irabazi izan. Orduan konturatu nintzen hemengo kirolari euskaldunek badutela zerbait ikusgarria munduari erakusteko.

Beteluko herriarekin harremana mantendu duzu beti?

Bai. Txikitatik etorri izan gara hona. Haurtzaroko oroitzapen politik dauzkat, errekan amuarrainak hartzen genituenekoak etab. Herriko semeak



Riki bere hiru anaiaekin eta gurasoekin.

*“Kirola afizioa sortuz
indartu behar da eta ez
apustuekin”*

gara. Estatu Batuetan “el vasco” deitzen didate eta hemen berriz “amerikanoa”. Normala da.

Zesta-puntarekin gertatu zen bezala erremonteak ere behera egin zuen, baina badirudi pixkanaka hasi direla gazteak berriz ere erremontean. Uste duzu bi kirol horiek berpizterik izanen dela?

Gazteak berriz ere hasten direla ikustea pozgarria da. Arazoa da, Ameriketan galduz gero, gazte horrek kirolarekiko maitasunagatik baino ez duela jokatu, etorkizunean ez du aukerarik izanen kanpora joateko eta horretaz bizi-tzeko. Eta horretarako pilotari zaharrenek ere erretiratzen jakin beharko lukete. Nik nire azken kontratua sinatu nuen

garaian hori gertatzen baitzen, zaharrenek ez zieten gazteei bidea egiten uzten, berekoikeri hutsagatik. Baina argi dago, berriz ere kirol horiek berpiztu nahi baditugu kirolarekiko afiziotik bertatik indartu behar dira eta ez apustuekin. Iparraldean bezala, han frontoiak apustu gabe bete egiten dira.

Saiakera berezi bat egiten ari zara hori lortzeko ezta?

Bai. “The basque challenge” izeneko kirol jaialdi bat antolatzen nabil, guk, euskaldunok munduari desafioa egiteko jaialdia, gure kiroletan nork irabaziko digu? Eusko Jaurlearitzarekin negoziatzen nabil. Islandiako Gobernuak dagoeneko neska bat badu lehiazeko prest eta mutila bilatzen dutenean etortzeko prest daude.

Jaialdi hori non eta noiz izango da?

Martxoaren amaiera aldera izanen da, Bilboko frontoian. Zesta-puntako bi partidu izanen dira lehenik, gero aizkora desafio bat nafarrak gipuzkoarren kontra, islandiarrek gure harriak altxa ditzaketen ikusteko pikea eta desafio sorpresa bat ere izanen da. Hemen, Euskal Herrian jaialdi bakarra egin nahi dut, baina hemendik kanpo, urtean beste hiru jaialdi egitea da nire helburua. Islandiarrekin New Yorken halako jaialdi bat egin nahiko nuke, eta baita eskoziarrekin ere.



Ricardo Sotil zena Beteluko Bengoetxean jaio zen.

3.500 euroko diru ekarpena egin dio Ene Kantak taldeak Mailoperi

Iazko udazkenean kaleratu zuen Ene Kantak taldeak "Oneka marraza" -ren ikuskizuna DVDan. 1.300 ale baino gehiago saldu ditu eta aurreratu bezala lan horretatik lortutako irabazien zati bat Mailope aldizkaria laguntzeko izanen da. Taldeak dagoeneko egin du bere ekarpena 3.500 euroekin. Mailopeko Zuzendaritza Taldearen izenean, eskerrik asko gure aldizkariari halako bultzada ekonomikoa ematen laguntzeagatik.

Eta bestetik, gogoratu azaroaz geroztik kalean dela Ene Kantak lan berria, "Astonautak" CD-DVDa.



Eskutik eskura, merkeago

Urtetik urtera geroz gehiago dira Lekunberrin egiten den bigarren eskuko azokara hurbiltzen direnak eta bertan jartzen diren postuak. Joan den hilean egin zuten azoka, jada laugarrena izan zen eta 21 postu jarri zituzten frontoian. Antolatzaileak pozik daude abenduko azokak eman zuenarekin eta maiatzean 8 postu gehiago izatea espero dute.



 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL**
LEKUNBERRI
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTAL - HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

ILBELTZA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

OTSAILA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

MARTXOA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

APIRILA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

MAIATZA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

EKAINA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

2017 maiilopea



egin
**BAT
ZUK**
korrikarekin



UZTAILA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

ABUZTUA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

IRAILA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

URRIA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

AZAROA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

ABENDUA

Al.	Ar.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31



mailope
2017



ez nazazu bota · birziklatu

garbi jokatuz konposta egin ezazu




LARRAUN
LEKUNBERRI



948 510 444
info@mendialdea.eus

ANIMA ZAITEZ PARTE HARTZERA!



Hasi da herri-galdeketa egin ahal izateko sinadura bilketa



Araitzen 70, Betelun 43, Larraunen 127 eta Lekunberrin 124 sinadura bildu beharko dituzte Mendialdeko Gure Esku Dago kideek ekainean herri-galdeketa gauzatzeko.

200 lagun inguru bildu ziren joan den hilaren 17an, Lekunberrin, Mendialdeko Gure Esku Dago deitutako aurkezpen ekitaldian.

2013an, alderdi politikoetatik at sortu zen herri-dinamikak erabakitzeko eskubidea gauzatzeko bidea irekitzen joan da urtero egindako ekimen ezberdinekin. Orain arte udalerriz udalerriri lan egin dute, aurten ordea Mendialdeko elkarteak sortu dute. Goizueta, Arano, Leitza, Areso, Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberri batzen dituen elkarteak da eta ekainean egitea aurreikusten duten herri-galdeketa gauzatzeko helburuarekin sortu dute.

Lekunberriko anfiteatroan egin zuten elkartearen aurkezpena eta adin, lanbide, alor eta sentsibiltate politiko ezberdineko herritarren babesa izan zuten.

“Ekainean herri-galdeketa egingo dugu. Horrek berme juridikoa eta baliozkotasun legala izan dezan protokolo zorrotza jarraituko da eta ez hori bakarrik, hemendik ekainera bitarte hainbat pauso eman beharko ditugu galdeketa gauzatu ahal izateko”.

Gure esku dago ekimeneko kideek dagoeneko eragile askoren atxikimendua lortu dute, baina herri-galdeketa egin ahal izateko ezinbestekoa izanen dute sinadura bilketa egitea.

“16 urtetik gorako biztanleen %10arena beharko dugu Leitza eta Lekunberriren kasuan, eta %15 gainontzeko udalerrietan. Goizuetan 96 sinadura, Aranon 15, Leitza 253, Areson 38, Araitzen 70, Betelun 43, Larraunen 127 eta 124 Lekunberrin”.

Dagoeneko irekita dago sinadurak biltzeko epea eta bi hilabetez luzatuko da.



Lortu dugu: arbel digitala dugu gure gelan!

Azaroaren 25eko aurrekontu parte-hartzaileetan 240 lagunek parte hartu zuten. Gehienek gure alde bozkatu zuten. Gure proiektuak, Leiho bat munduari begira, jaso zituen boto gehien. Gu oso pozik jarri ginen arbel digitala lortu genuela jakin genuenean. Eskerrik asko denei!

Ibarberri Eskolako 4. Mailako ikasleak.



- 90 -

Elkartasun Astea Ibarberri Eskolan

Abenduaren 13tik 16ra bitarte Elkartasun astea ospatu dugu eskolan. Bertan, alde batetik, jostailu bilketa bat egin da, umeen esparruan lan egiten duen Saharako Anarask erakundeari laguntza eskaintzeko. GKE (gobernuz kanpoko erakundea) honek, Nafarroako eta estatuko garapenerako erakundeen sarean parte hartzen du. Bertan bildu ditugun jostailuak Saharara bidaliko ditugu, otsailan aterako den kontainer batean.

Bestetik, Nafarroako Elikagai Bankurako janari bilketa ere egin dugu aste honetan eskolan behar egoeran dauden familiei banatu ahal izateko.

Ekintza hau eskualdeko Gizarte Zerbitzuek, Guraso Elkarteak eta Eskolak elkarlanean aurrera eraman dute, eta DBHko ikasleek zuzenean parte hartu dugu goizeroko bilketa honetan.

Mila esker zuen jostailuak eta janariak ekarri dituzuen guztioi!



Zarateko irteera

Aurten ere, urtero bezala Araxes ikastetxeok mendira txangoa prestatu dugu. Eskola guztia joaten gara, beti inguruko mendietara. Aurten Zaratera joan gara, Azkaraten dago, Nafarroako eta Gipuzkoako mugan. Txikiak zuzenean Zaratera joan ziren. DBH 2-koak 3 taldetan banatu ginen eta bidea aztertu genuen. Bakoitzak zati batean gidatu zuen. Bi bide egon ziren, 1.mailatik-4.era bide motzagoa egin zuten eta 5.mailatik DBH 2ra bide luzeena egin genuen, hara iristerakoan, denak elkartu ginen eta Zarate ezagutu genuen.



9.30etan Beteluko eskolatik

abiatu ginen ibilbidea egitera. Ibilbidea taldeetan banatu genuen. Egun eguzkitsua eta hotza izan genuen, goizean jertsearekin abiatu ginen, baina Azkuera iristerakoan motxilak jertsez beteta zeuden.

Lehenengo zatia nahiko aldapatsua izan zen, batez ere Intzako bidegurutzetik Azkuera, gero Uztzegira jaisteko aldapa behera egin genuen. Izugarritzko bistak ikusteko zortea izan genuen. Uztzegtik-Azkaraterako zatia errazagoa zen. Azkaratera iritsi ginenean plazan hamaiketakoak jan genuen. Bertatik Malloen ikuspegi ederra zegoen, Balerdi oso ondo ikusten zen. Hamaiketakoak egin eta Balerdi Txikiko bidea hartu genuen. Mendi txiki hura inguratu genuen. Haren magaletik Azkarate guztia ikusten zen. Etxeen arteko distantzia handia zela nabaria zen. Zaraterako bidea hartu genuen zuhaitzez betetako zelai hartara iritsi ginen arte.

Zarate, Azkarate eta Bedaio artean dagoen muga da. Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mugak duela urte batzuk izan zuen garrantzia eta zorrotasuna ezagutarazteko, erakustaldiaz gain ekintza desberdinak egin dira, kontzertuak, ondoko herrietako jendearekin bideo bat... "Azken muga" egitasmoa dela eta.

Erakustaldian artista askok erakutsi zituzten beraien lanak adibidez: Txixi Orbegozok, Guillermo Olmok etab. Gu-rekin, Azken Mugaren inguruan, Mikel Zeberio eta Guillermo Olmo egon ziren hizketan. Artelan asko zeuden baina ikusgarriena eserleku erraldoi bat zen, egurrak bertikalki jarrita zituen txalaparta bat, armiarma sare bat armiarma eta guzti etab.

Egun zoragarria izan zen eta denok batera bazkaldu genuen, argazki asko atera eta etxera bueltatzeko bideari ekin genion.



Lagunasesoria S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

German Lasarte
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

Kultur Asteak eman duenarekin pozik dago Araitz eta Beteluko Euskaraz Bizi taldea

“Araitz eta Beteluko “Euskaraz bizi” taldeak eskerrak eman nahi dizkizue aurtengo kultur astearen antolaketan laguntza eskaini diguzuen guztiei.

Bi urteko etenaldia pasa da. 2016. urtean ilusio handiarekin ekin zion taldeak Kultur Astea berriro antolatzeko lanari, eta esan beharra daukagu oso balorazio positiboa egiten dugula.

Jardueraz beteriko astea izan dugu, gai eta arlo ezberdinak lantzen saiatu gara, adin tarte guztiak aintzat hartu eta gaur egun interesgarriak izan zitezkeenei lehenatasuna emanaz. Eta pozgarria da jendeak horren ongi erantzutea; herritarren parte hartzea beharrezkoa baita gure proposamen honek arrakasta izan dezan!

Herritarrok kultur astearekiko daukagun sentsibilizazio eta motibazio hori da, datorren urteari begira, lanari ekiteko taldeari indarra eta gogoia ematen diona.

Baina Kultur Astea ez da bakarra. Gure bailaran hainbat ekimen burutuko dira urtean zehar, horren adierazle Araxes eskolan martxan jarri berri duten “Euskararen Kriseilua” egitasmoa, euskararen erabilera familia giroan itzal ez dadin. Gure taldeak bat egiten du eskolarekin egitasmo honetan, eta herritarrek ere animatu nahi ditugu ahalegin horretan, gurea den hizkuntzari arnaguneak eskaintzeko bidean, alegia. Mila esker guztiei zuen laguntzagatik!!!!”.



ekin
rotulación
948 85 32 79

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

GARAIZ
Zure behar eta ordutegira moldatuko gara
ETORRI ETA INFORMAZIA ZAITEZ!!
Mate
erdia eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika
lengua
euskera
inglesa
kimika
marrazketa tekniko
historia
948 504 450
648253525
unibertsitate mailako ikasgaiak

846 izan da KK Plastaren txartel sariduna



Beste urte batez Mailoperen aldeko KK Plasta egin genuen joan den hilean. Barabarren ospatu zen Larraungo Egunean egin genuen lehen aldiz eta Lekunberriko Pilarika jaietan hurrengoak. Aurten Araitx eta Beteluko Eguna aprobetxatuz Atallun egitea erabaki genuen. Jimmy zaldia izan zen eguneko protagonista eta gure sorpresarako eta pazientziak denbora eman genion arren, zaldiak ez zuen kaka egin. Baina baloi baten laguntzarekin azkenean atera genuen zenbaki sariduna. Izaskun Gallegok erosi zuen 846 zenbakidun txartela eta bere hiru seme-alabekin batera, Aiala (6 urte), Beñat (8 urte) eta Nahia (10 urte), jaso zuen saria. Zorionak!

Eskerrik asko Ane Zabalarri Jimmy zaldiarekin emandako laguntzagatik, Javier Saralegiri urtero ekimena prestatzen egiten duen lanagatik eta parte hartu duzuen guztioi.

Bertako bertsolariak Nafarroako Txapelketan

Hasi da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Joan den hilean Iruñeko Katakraken jokatu zen saioan, txapelketan lehen aldiz izen eman duten bertsolariak aritu ziren, Joanes Illarregi, Ander Baiano, Ainara Iregi, Aitor Irastortza, Luis Mari Larreta, Sahats Aleman, Joana Ziganda eta Saats Karasatorre. Azken horrek irabazi zuen lehen postua eta berarekin batera sailkatu

ziren Joanes, Sahats eta Joana otsailean jokatuko diren final-laurdenetarako.

30 bertsolarik parte hartuko dute final-laurdenetan. Otsailaren 18an izanen da lehen saioa eta txapelketa apirilaren 8an amaituko da.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

**Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.**



Olentzero, etxez etxe eta ikastetxez ikastetxe



Iritsi dira Eguberriak eta Olentzero urtero bezala Gabon gauean gure herrietan etxez etxe ibili zen opariak banatzen. Pare bat egun lehenago ordea, ez zion huts egin ikastetxeetan zuen hizorduei. Bai Ibarberrin eta baita Araxes ikastetxean ere ikasleek berarekin egoteko aukera izan zuten eta abestiak, antzezlanak eta dantzak ikuskizunak eskaini zizkioten.

Horra hor aurtengoan jasotako zenbait irudi!



Olentzero eta Mari Domingi ikasleekin izan ziren.



Araxes ikastetxeko ikasleek abestiak eta antzezlanak eskaini zituzten Eguberrietako jaialdian.




GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII! TLF BERRIA:
948 51 30 32



panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

“Oso polita da saioetan ematen duten aurrerapausoa ikustea”



Lau urtez jarraian antolatu ditu Aralar Udal Musika Eskolak Musikari Txikien tailerrak. Orain arte sei hilabete eta hiru urteko haurrei zuzendutako tailerrak ziren, haur eta gurasoen arteko lotura afektiboa indartu, musikaz gozatzeko, haurren zentzumenak esnatzeko... Aurten hiru eta lau urteko haurrentzako tailerrak ere eskainiko dituzte. Urtearrilaren 26an amaituko da izen emateko epea. Unai Artola irakaslearekin izan gara.

Orain dela lau urte hasi zineten Musikari txikien tailerra eskaintzen. Nolatan?

Marta Zuñiga, nire lankidea, eta ni Barzelonan izan ginen. Han aurreratuago daudelako halako esperientziekin. Aralar Udal Musika Eskolan lau urterekin hasi ohi dira eta guk haur txikiagoekin nola landu zitekeen ikusteko gogoia genuen. Material dezente eman ziguten eta musika eskolan eremu horretan zerbait egitea proposatu genuen eta hala hasi ginen. Lehen urte hartan Goizuetan, Leitzan eta Lekunberrin talde txikiak sortu genituen eta oso ongi ateratu zen. Martak lehenagotik esperientzia pixka bat bazuen, Lazkaon ibilia baitzen halako ikastaroak eskaintzen, horregatik bera izan zen giltzarri eta biok pixkanaka ikasten joan gara.

Sei hilabete eta hiru urte bitarteko haurrekin hasi zineten...

Bai. Sei hilabete ingururekin jada euren

burua tente mantentzeko, eserita egoteko eta batzuk lau hankatan ibiltzeko gai dira. Aurretik ere egin daiteke, baina haurdunaldian zehar ere, baina guk batez ere guraso eta haurren arteko erlazio hori bideratu nahi genuen beraien autonomiatik hasita.

Eta geroztik urtero eskaini dituzte tailer horiek, ezta?

Bai. Gainera, Aralar Udal Musika Eskolan eskaintzeaz gainera beste musika eskoletan ere izan gara tailerrak eskaintzen. Bigarren urtean Noainen eta Zangozan izan ginen, Beratik ere eskaria egin ziguten eta Burlatan ere izan gara azkeneko bi urte hauetan. Egia esan oso kontentu gaude.

Zenbat saioko tailerrak dira?

Ordubeteko lau saio dira bakarrik, baina ikusten den garapena oso polita da, hala ere garrantzitsua da bertan ikasitakoari

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU BAR

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA
bokatak, platerak eta...musika.....

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com

jarraipena ematea. Hori da tailerra-
ren helburua, gurasoei grabazioak eta
etxean lantzeko moduko ariketak es-
kaintzea gero jarraipena eman diezaio-
ten eta haurri musikaren eta magiaren
bitartez garapen egokian bideratzeko.

Orain arte zenbat pertsonako taldeak izan dituzue?

Gehienez hamabi laguneko tailerrak izaten dira, hamabi haur euren aita edo amarekin. Hasieran, Noainen adibidez, 17 pertsonako taldeak izan genituen eta konturatu ginen gehiegi zela. Haurrak ere oraindik asko ez dira haurtzaindegian hasi eta ez daude ohituta horrenbeste jenderekin egotera, geroz eta jende gutxiago orduan eta eramangarriagoa da. Hala ere, ez dira zenbateko zurrunik. Hamabi baino gehiagorekin eta gutxiagorekin ere egin izan ditugu geroztik. Eta ahal bada adinaren arabera eta behar berdinak dituzten haurrak taldetxotan sailkatzen saiatzen gara, onuragarriagoa eta zuzenduagoa izan dadin tailerra. Eta talde batean sei hilabete eta hiru urte t'erdiko haurrak daudenean, adibidez, material berarekin modu ezberdinean

lantzen dugu batzuekin edo besteekin, beharrak ez baitira berdinak.

Eta nolakoak izaten dira saio horiek?

Ariketa ezberdinak egiten ditugu eta horretarako, musika tresnak eta panpinak erabiltzen ditugu, nolabaiteko ipuin musikatuak ere egiten ditugu... Oinarrian, musika, magia, dantza eta psikomotrizitate ariketen bitartez saiatzen gara haurraren garapenean eragiten. Garrantzitsua izaten da saio guztiak berdin hasi eta amaitzea, umeentzako lekua eta egoera ezaguna izan dadin. Ariketak asko errepikatzen dira eta hori gurasoentzat pixka bat pisua izan daitekeen arren, txikieneztat oso lagungarria da, haurrak seguru sentitzen diren momentuan ikus daitezkeelako noraino irits daitezkeen.

Aurten berritasun bat ere baduzue... 3 eta 4 urte bitartekoentzako ere eskainiko duzue ezta?

Bai. Musika eskolan lau urterekin hasten direnez, aurretik tailerretan parte hartzen

zutenek erdian gelditzen zen urtebeteko tarte horretan eskaintza falta sumatzen zuten. Eskari horri erantzuteko helburuarekin, aurten, 3 eta 4 urte bitartekoentzako lau saioko tailerra eskainiko dugu. Berez, musikari txikiekin lantzen dugun guzti horren jarraipena izanen da, baina kasu horretan, gurasoek ez dute saioetan parte hartuko.

Noiz hasiko zarete aurtengo tailerrekin?

Dagoeneko aurrez izen emateko epea zabalik dago eta urtarrilaren 26ra arte egonen da izen emateko aukera. Ondoren eskaria ikusita datak eta ordutegiak zehaztuko ditugu eta aurre izen eman dutenei horren berri emandakoan izen emateko epea irekiko dugu. Gure aurreikuspenen arabera, otsailean hasiko gara saioekin.



ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES

GARBIGUNE IBILTARIA

Urtarrilak 20, ostirala, PUNTU GARBIA MUGIKORRA pasako da.
Bertara, honako hondakin mota hauek eramán behar dira:

- *pilak, mugikorrak
- *bonbilak eta fluoreszenteak
- *pinturak, barnizak, disolbanteak...
- *autoen bateriak, olioak...
- *toner, tinta kartutxoak...
- *elektrogailu txikiak
- *aerosolak, lixiba
- *radiografiak, termometroak

Herri bakoitzean, etxeko olioak biltzeko dagoen ontziaren
ondoan kokatuko da ondorengo ordutegian:

BETELU:	10:00-11:00 (ESKOLA AURREAN)
ARRIBE:	11:00-11:30
ATALLU:	11:30-12:00
AZKARATE:	12:00-12:30
GAINTZA:	13:00-13:30
UZTEGI:	13:30-14:00
INTZA:	14:00-14:30



Zereal integralak ezagutzen

Asko dira ale txiki hauetan aurki ditzakegun ezaugarri osasuntsuak, eta zeresanik ez eguneroko elikadura orekatuan duten garrantzia. Zereal integralek ez dute inongo prozesurik jasaten, ez dira finduak izan, beraz, zahia (alearen kanpoko alea, zuntza), germena eta endospermoaz osaturik daude. Alea den bezalaxe erabiltzen dira. Mota askotako zerealak aurki ditzakegu eta elikagai hauek naturalak eta osasuntsuak dira. Zuntzan aberatsak izateaz gain, karbohidrato konplexuetan ere aberatsak dira. Azken hauek energia denbora luzean poliki ematen digute. Bestalde, bitamina eta mineraletan aberatsak dira, batez ere; B taldeko bitaminetan, baita E bitaminan. Mineralei dagokiernez burdina, zinka, kobrea, magnesioa, selenioa eta fosforoa dute batez ere. Proteinak ere badituzte eta lipidoetan pobreak dira zereal integralak.

Zereal hauek kontsumitzera animatzen zaituztet, izan ere zerealak, ogia, irinak... finduak direnean propietate asko galtzen dituzte (bitaminak, mineralak eta zuntza behintzat). Zerealak integralak izateaz gain, osorik jatea gomentatzen dut, nolabait, modu honetan bizirik dago. Ogia, irina edo pastaren kasuan, zereala hilik dago. Dazkaten propietate guztiez aprobetxatu nahi badugu, hobe zereala alean jatea. Ah eta ez haztu ekologikoak izan daitezela!!



Zerealak fintzen direnean propietate asko galtzen dituzte.

Hona hemen zereal integralen onurak:

- Gaixotasun kardiobaskularren prebentzioan laguntzen du: kolesterola, triglizeridoak...
- Minbiziaren prebentzioan ere laguntzen du, batez ere, kolonaren minbizian.
- Osasun gastrointestinalean (digestio aparatua) hobetzen du. Zuntzak idorreria hobetzen eta orekatzen laguntzen du.
- Diabetesaren prebentzioan laguntzen du.
- Pisuaren kontrolean laguntzen du, denbora gehiagoz ase mantentzen gaitu eta.

Ondorengo bi zutabeetan, zerealak sailkatuko ditut, alde batetik glutena dutenak eta bestetik ez dutenak.

GLUTENA DUTENAK:

- Zekalea (centeno), gari arruntak baino gluten gutxiago du eta zuntz asko dauka.
- Oloa (avena), ez du gluten askorik.
- Garagarra.
- Espelta, gariaren arbasoa da eta gariak baino gluten gutxiago du.
- Kamut, proteina ugari du zereal honek.
- Gari arrunta.

GLUTENA EZ DUTEN ZEREALAK:

- Artoa.
- Arto beltza.
- Arroza.
- Quinoa. (Hau sasi-zereal bat da). Zereal baten propietateak ditu, baina ez da zereal bat. Proteina asko du eta kirolarientzat oso gomendagarria.
- Amaranto.
- Teff . Kaltzioan oso aberatsa den zereala da.

Hona hemen ale honetan eskaini dizuedana. Hurrengoan errezeta batzuekin etorriko naiz....



Harremanetarako:

Nere Sotil Buldain: 608321905 /
neresotil@gmail.com

TAXILON Lontxo Otamendi Artola
661 202 249 (9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA
URZUBI S.A.
Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

Lagundu Mailope!
Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailto:mailope@labrit.net

Eskualdeko hamahiru neskek parte hartu dute Nafarroa mailako igeriketa sinkronizatuan

Eskualdeko 13 neskek hartu zuten parte joan den hilean jokatu zen Nafarroa mailako igeriketa sinkronizatuko txapelketan. Amaya kiroldegiko igerilekuan egin zituzten probak eta trofeorik ez zuten lortu baina esperientzia ona izan.

Estefania Lamian, Nerea Galindo, Nahia Astiz, Irati Buldain, Elyne Curtet, Uxue Etxarri, Nur Sancho, Uxue Arretxea, Enara Aldaregia, Zuriñe Serrano, Cristina Maken-

dzhieva, Alaia Ariz eta Itxaso Iribarren izan ziren parte hartu zuten eskualdeko igerilariak. Baina ez dira igeriketa sinkronizatuan aritzen diren bakarrak, Plazaola kirolgunean astero 35 neska aritzen dira entrenatzen. Ikasturte honetan Barbara Beriain dabil irakasle lanetan eta Kirol Mankomunitateko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiote ilusioz egiten ari den lanagatik.



XII. Araitz-Beteluko Kroserako prest

Urtarrilaren 15ean izanen da Araitz-Beteluko Krosa eta antolatzaileek dagoeneko dena prest dute. XII. lasterketa da aurtengoa eta ibilbidean ez da aldaketarik espero. Beteluko plazan, eguerdiko hamabietan emanen zaio hasiera eta korrikalariak Betelu eta Atallu arteko 7,7 kilometroko buelta egin beharko dute. Saillkatzen diren lehenengo hiru korrikalariarentzat sariak izanen dira, gizonezkoetan zein emakumezkoetan, eta baita eskualdeko korrikalari azkarrenentzat ere.

Proba nagusiaren aurretik, ohi bezala, umeen krosa egingen da eta bi proben ondotik askaritzoa izanen dute eta sorpresaren bat ere izanen dela aurreratu dute antolatzaileek.

Izen emateko epea dagoeneko zabalik dago www.kirolprobak.com atarian eta lasterketaren egunean bertan ere aukera izanen da Beteluko plazan 10:45etatik 11:30etara.

ilbeltza

2

LEKUNBERRI. Larraun eta Lekunberriko historiari buruzko umeentzako eta gazteentzako lehiaketa izanen da udaletxeko batzar aretoan, 17:30etan.

5

Erregeen etorrera. Lekunberriin 19:00tan izanen da.

15

BETELU XII. Araitz-Beteluko Krosa.

Otsailaren 15era arte, "Lekunberri eta inguruak" argazki erakusketa Lekunberriko Mitxasenea Kultur Etxean.

agenda

merkatu txikia

SALGAI

- Antxumeak eta txerri gizena salgai. 670258202 (Orixenea Baserria).

ALOKAIRUAN

- Pisua alokatzen da Beteilun, bizitzera sartzeko prest. 80m2-ko pisua altzariz hornitua. 690 006 283 (Mila).

GALDUTAKOAK

- Dron bat galdu dugu, norbaitek topatzen badu deitu 650 070 919 zenbakira. Mila.

- Bajera bat alokatzen da Beteilun. 690 006 283 (Mila)

ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkarianen bitartez!

KuxKuxean



IZEI GOÑI

Ilbeltzak 16, 9 urte.

Zorionak Izei!

Ongi ongi pasa eta muxu haundi bat etxekon partez.



IÑIGO OREJA

Urtarrilak 18.

Zorionak Aitatxo!! Muxu erraldoi bat etxeko hiru erraldoi txikien partez jeje...

Ongi pasa zure eguna, Ama, Egoitz, Eneko eta Itxaso!



ENARA ETXARRI URBIZU

Ilbeltzak 18, 3 urte.

Zorionak Enaratxu! Txupetea utzita, txapelduna zara! 3 muxu puska etxeko guztien partetik.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15**
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza



Hemen gaude!



Mendialdean erabakitza goaz!

